

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroak erakarri nahi ditugu publizitatearen eta iragarkien bidez, gure webgunea erabiliz gero izango dituzten abantailak azaltzeko. Ahoz ahoko metodoa ere erabiliko dugu, herri txikietan beti izaten baita eraginkorragoa. Zenbait alditik behin eskaintzak eta deskontuak egingo dizkiegu, ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzeko.

Gure ustez, gure bezeroak zerbitzu eta produktuekin pozik daudenean, gure web-gunea erakutsiko diete beren ezagunei eta lagunei. Horrela, haien laguntzari esker, bezero gehiago izango ditugu, beraz, gure enpresa hazi ahal izango da.



Gure asmoa da, gure enpresa hazten denean, dendak jartzea, horrela bezeroen eremua handitu ahal izango dugu.

Hasieran, gure web orriarekin, autozerbitzua erabiliko dugu, baina dei-lineak egongo dira erabilgarri, gure bezeroek zalantzarik izanez gero, deitu eta lagundu ahal izateko.



Gure enpresa zenbat eta gehiago hazi, bezeroekiko tratua pertsonalagoa eta esklusiboagoa izatea espero dugu.

